| ORIOKO MERKATARITZA ETA OSTALARITZA SEKTOREETAN COVID-19ARI AURE EGITEKO INBERTSIO ETA EKIPAMENDUETARAKO DIRULAGUNTZAK | AYUDAS PARA LA REACTIVACIÓN ECONÓMICA LOCAL EN LOS SECTORES DEL COMERCIO Y HOSTELERÍA PARA HACER FRENTE A LA COVID-19 |
|---|---|
| **1. artikulua. DEIALDIAREN HELBURUA**<br><br>Oinarri hauen helburua da ezohiko dirulaguntzak arautzea, Orioko ostalaritza eta merkataritza sektoreko mikroenpresei, enpresa txikiei eta norbere konturako langileei laguntzeko. Horretarako, dirulaguntzak emango dira inbertsioak eta ekipamendua eskura ditzaten, Covid-19ak sortutako egoera berri honetan jarduera ekonomikoari, enpleguari eta lehiakortasunari eusteko.<br><br>Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamenduaren finantzaketa jaso da dirulaguntza honetarako, “Covid-19ari aurre egiteko tokiko merkataritza eta ostalaritza sektoreetan ekonomia indarberritzeko programa”-ri esker.<br><br>Dirulaguntza hauen azken helburua da udalerriko merkataritza eta ostalaritza alorretako establezimenduei Covid-19aren ondoreneko errealitatean beren iraupena bermatzen laguntzea<br><br>**2. artikulua. ARAUBIDEA**<br><br>Deialdi hau arautuko du honako araubideak:<br><br>• 39/2015 Legea Herri Administrazioen Administrazio Prozedura.<br>• Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, eta 887/2006 Errege Dekretua, eta hura garatzeko arautegia.<br>• 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, eta zehatzago 17. artikuluko 25. puntua tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena, eta tokiko enplegu-planak edo -politikak arautzen dituena udalerrien eskumen propio bezala<br>• Orioko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza. | **Artículo 1. OBJETO DE LA CONVOCATORIA**<br><br>El objeto de estas bases es regular las ayudas económicas extraordinarias destinadas a las microempresas, empresas pequeñas y trabajadores por cuenta propia del sector de la hostelería y comercio de Orio. Para ello, se pretende subvencionar la adquisición de las inversiones y equipamientos necesarios para mantener la actividad económica, el empleo y la dimensión competitiva del sector.<br><br>Para esta subvención se ha contado con la financiación del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa, gracias al "programa de reactivación económica en los segmentos de Comercio y Hostelería Local para hacer frente al Covid-19".<br><br>El objetivo último de estas ayudas es ayudar a los establecimientos comerciales y hosteleros del municipio a garantizar su supervivencia en la realidad posterior al Covid-19.<br><br>**Artículo 2. REGIMEN JURÍDICO**<br><br>La presente convocatoria se regirá por el siguiente régimen:<br><br>o Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.<br>o Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en el Real Decreto 887/2006, y su normativa de desarrollo.<br>o Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, y en concreto el artículo 17 punto 25, que regula como competencias propias de los municipios el desarrollo local económico y social y políticas o planes locales de empleo.<br>o Ordenanza Municipal de subvenciones del Ayuntamiento de Orio. |

| | |
|---|---|
| Oinarrietan agertzen ez den guztian, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra eta indarrean dauden gainerako arauak aplikatuko dira. | En todos los aspectos no reflejados en esta normativa, será de aplicación la Ley General de Subvenciones 38/2003 y demás leyes en vigor. |
| **3. artikulua. FINANTZAKETA.**<br><br>Eman beharreko laguntzak finantzatzeko gehienez eskura dauden baliabide ekonomikoak hogeita lau mila zazpiehun eta berrogeita bat (24.741 €) eurokoak dira, Orioko Udalaren 2020 ekitaldirako aurrekontuko orokorretako 1.2019.716.01.431.50 aurrekontu partidakoak.<br><br>Dirulaguntza deialdi honetara bideratutako aurrekontua Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentutik jaso da, zehazki «Covid19ari aurre egiteko tokiko merkataritza eta ostalaritza sektoreetan ekonomia indarberritzeko programa»-tik (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA. 108. zenbakia. 2020ko ekainaren 10a, asteazkena). | **3. artikulua. FINANCIACIÓN**<br><br>El crédito máximo disponible para la financiación de las ayudas a conceder es de veinticuatro mil setecientos cuarenta y un (24.741 €) euros. Se le imputarán ayudas para los Presupuestos Generales del Ayuntamiento de Orio para el ejercicio 2020, correspondientes a la partida presupuestaria 1.2019.716.01.431.50.<br><br>El presupuesto destinado a la convocatoria de estas ayudas se ha recibido del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en concreto del «Programa para la reactivación económica local en los sectores del comercio y hostelería para hacer frente a la Covid19» (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa. Número 108. Miércoles, a 10 de junio de 2020). |
| **4. artikulua. ONURADUNAK**<br><br>Laguntzen onuradunak izango dira honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak:<br><br>• Orioko udalerrian kokatuta dauden txikizkako salmentazko establezimenduak eta ostalaritzako establezimenduak.<br>• Pertsona fisikoa norberaren konturako langilea, 10 langile baino gutxiagoko mikroenpresa edo 50 langile baino gutxiagoko enpresa ertaina izatea.<br>• Enpresaren jarduera Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren (JEZ) lehenengo ataleko multzo, talde edo epigrafe hauetakoren batean egotea:<br>  ○ 64 multzoa: Elikagaien, edarien eta tabakoaren txikizkako merkataritza establezimendu finkoetan.<br>  ○ 65 multzoa: Elikagaiak ez diren ekoizkin industrialen txikizkako salmenta, establezimendu finkoetan.<br>  ○ 67 multzoa: Elikagaien zerbitzuak.<br>  ○ 691 Taldea: Etxerako, auto ibilgailuentzat eta beste kontsumo | **Artículo 4. BENEFICIARIOS/AS**<br><br>Serán beneficiarias de las ayudas las personas físicas o jurídicas que cumplan los siguientes requisitos:<br><br>• Establecimientos de venta al por menor y de hostelería ubicados en el término municipal de Orio.<br>• Que la persona física sea un trabajador/a por cuenta propia, una microempresa de menos de 10 trabajadores o mediana empresa de menos de 50 trabajadores.<br>• Estar dado de alta en alguna de las agrupaciones, grupos o epígrafes de la sección primera del Impuesto sobre Actividades Económicas que se concretan a continuación:<br>  ○ Agrupación 64: Comercio al por menor de productos alimenticios, bebidas y tabacos, en establecimientos permanentes.<br>  ○ Agrupación 65: Comercio al por menor de productos industriales no alimenticios realizado en establecimientos permanentes.<br>  ○ Agrupación 67: Servicios de alimentación. |

| | |
|---|---|
| ○ ondasun zenbaitetarako artikulu elektrikoen konponketa.<br>○ 972 Taldea: Ile-apainketako eta edergintzako aretoak.<br>○ 432 Taldea. Barne disenaitzaileak. | ○ Grupo 691: Reparación de artículos eléctricos para el hogar, vehículos automóviles y otros bienes de consumo.<br>○ Grupo 972: Salones de peluquería y belleza.<br>○ Grupo 432. Diseñadores de interiores. |
| **5. artikulua. ONURADUNEN BETEBEHARRAK**<br><br>• Dirulaguntza publikoak lortzeko aukeretatik baztertuta ez egotea.<br>• Laguntza hauek lortzerik ez dute izango ondokoek:<br>  ○ Orioko Udalarekin ondoz ondoko hornidura eta zerbitzu-kontratu publikoen titularrak diren pertsona fisikoak eta juridikoak.<br>  ○ Partaidetza publikoa duten enpresak.<br>• Orioko Udalarekiko, Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.<br>• Indarrean dagoen lan arloko araubidea betetzea, besteak beste eta bereziki lan arriskuak prebenitzeko araubidea.<br>• Autonomoen kasuan, alegatutako jarduera ekonomikoa beren jarduera nagusia izatea, hau da, beren diru-sarreren iturri nagusia. | **Artículo 5. OBLIGACIONES DE LOS BENEFICIARIOS/AS**<br><br>• No estar excluida de la posibilidad de obtener subvenciones públicas.<br>• No podrán obtener estas ayudas:<br>  • Personas físicas y jurídicas titulares de contratos públicos de suministros y servicios de prestación sucesiva con el Ayuntamiento de Orio.<br>  • Empresas con participación pública.<br>• Estar al corriente de sus obligaciones tributarias con el Ayuntamiento de Orio, con la Diputación Foral de Gipuzkoa y con la Seguridad Social.<br>• Cumplimiento de la normativa laboral vigente, entre otras, y en particular la relativa a la prevención de riesgos laborales.<br>• En el caso de los autónomos, que la actividad económica alegada sea su principal actividad, es decir, su principal fuente de ingresos. |
| **6. artikulua. DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA.**<br><br>Ematen diren laguntzek itzuli beharrik gabeko dirulaguntza izaera izango dute.<br><br>Dirulaguntzaren kopurua izango da, hurrengo artikuluan zehaztutako gastu hautagarrien %100ekoa, betiere, 2.000 euroko gehienezko mugarekin. | **Artículo 6. IMPORTE DE LA SUBVENCIÓN**<br><br>Las ayudas que se concedan tendrán la consideración de subvención a fondo perdido.<br><br>El importe de la subvención será el 100% de los gastos elegibles especificados en el artículo siguiente, con un límite máximo de 2.000 euros. |
| **7. artikulua. GASTU HAUTAGARRIAK.**<br><br>Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira ondoren zerrendatzen direnak, 2020ko martxoaren 14tik 2021eko maiatzaren 15era arte egindakoak, betiere Covid-19ari aurre egiteko neurriekin lotura zuzena badute, eta argi eta garbi azaldu beharko dira II. eranskinean; eskabidearekin batera aurkeztu behar da. Fakturaren data hartuko da kontuan. | **Artículo 7. GASTOS SUBVENCIONABLES**<br><br>Tendrán la consideración de gastos subvencionables los siguientes generados desde el 14 de marzo de 2020 hasta el 15 de mayo de 2021, siempre y cuando estén directamente relacionados con las medidas a adoptar para hacer frente al Covid-19, y se deberán explicar claramente en el anexo 2 que se presentará junto con la solicitud. Se tomará en consideración la fecha de facturación. |

| | |
|---|---|
| • Babeserako egindako inbertsioak: banaketa sistemak (adibidez manparak); ordainketa sistema berriak; seinalizaziorako euskarriak (kartelak, biniloak, ...); desinfekzio aparailuak, contactless sistemak, aireazio sisteman aldaketak...<br>• Lokalak eta lan moduak egokitzea.<br>• COVID-19an esposizio eta hedapen arriskuen aurrean babeserako inbertsioak, lan egiteko moduak eta lokalak egiteko beharrezko diren ikerketak.<br>• Bezeroekin eta entitate hornitzaileekin lan erlazio berrietara egokitzeko inbertsioak eta ekipamendua (teknologian egindako inbertsioak).<br><br>Zeharkako zergak ezin izango dira diruz lagundu berreskuratu edo konpentsatu daitezkeenean. Hurrengo ondasun eta eskubideak ezingo dira diruz lagundu: ekoizpen-prozesuan sar daitezkeenak eta haien salmenta edo kudeaketa pertsona onuradunaren aktibitatearen parte direnean.<br><br>Diruz lagundu daitezkeen aktibo hauetan ondorengo mugak ezartzen dira:<br><br>• Sakelako telefono, tablet eta antzekoetan gehienez ere elementu bakoitzeko 200 €ko kostua hartua da kontuan dirulaguntza kalkulatzeko.<br><br>• Ekipo informatikoetan gehienez ere elementu bakoitzeko 600 €-ko kostua hartuko da kontuan dirulaguntza kalkulatzeko.<br><br>Ez dira diruz lagunduko maskara, eskularru, gel, bata eta antzeko materialetan egindako gastuak.<br><br>Ez dira onartuko 150 euro garbitik beherako laguntza eskaerak (BEZik gabe).<br><br>**8. artikulua. DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA**<br><br>Dirulaguntza hauek ebazteko eskumena Alkatetzak izango du. Dekretu bidez ebatziko dira, Turismo, Merkataritza eta Ostalaritza sailak oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiztatu ostean. | • Inversiones en protección: sistemas de separadores (por ejemplo mamparas); nuevos sistemas de pago; soportes de de señalización (carteles, vinilos, ...); aparatos de desinfección, sistemas contactless, sistema de ventilación,...<br>• Adecuación de locales y formas de trabajo.<br>• Inversiones de protección frente a riesgos de exposición y expansión en el COVID-19, formas de trabajo y estudios necesarios para la realización de locales.<br>• Inversiones y equipamiento para la adaptación a las nuevas relaciones laborales con clientes y entidades proveedoras (inversiones tecnológicas).<br><br>Los impuestos indirectos no serán subvencionables cuando sean recuperables o compensables. No serán subvencionables los bienes y derechos que puedan incorporarse al proceso productivo y cuya venta o gestión forme parte de la actividad de la persona beneficiaria.<br><br>En estos activos subvencionables se establecen los siguientes límites:<br><br>• En los teléfonos móviles, tablets y similares se tendrá en cuenta un coste máximo de 200 € por elemento para el cálculo de la subvención.<br><br>• En equipos informáticos se tendrá en cuenta un coste máximo de 600 € por elemento para el cálculo de la subvención.<br><br>No serán subvencionables los gastos realizados en mascarillas, guantes, geles, batas y similares.<br><br>No se admitirán solicitudes de ayuda inferiores a 150 euros netos (sin IVA).<br><br>**Artículo 8. PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN DE LA SUBVENCIÓN**<br><br>La competencia para resolver la concesión de estas ayudadas será de Alcaldía. Se resolverán por decreto, previa comprobación de los requisitos establecidos en estas bases por parte del departamento de Turismo, Comercio y Hostelería. |

| | |
|---|---|
| Dirulaguntza eman edo ez emateko erabakia arrazoitu egin beharko da, eta, edonola ere, egiaztaturik egongo dira hartzen den erabakiaren oinarriak, oinarri-arauetan agintzen dituzten irizpide objektiboei buruz. Ebazpen hori eskatzaileari jakinaraziko zaio, eta bertan berariaz adieraziko dira dirulaguntzaren xedea, eskatzailea edo dirulaguntza jasoko duten eskatzaileen zerrenda, zenbatekoa, ordaintzeko modua, eta oinarri orokor hauetan eskatutako gainerako baldintzak eta betekizunak. Era berean, udal-ebazpenean adieraziko da zer errekurtso jar daitezkeen ebazpen horren aurka, zer organo judizialetan aurkeztu behar diren eta zer epetan, hargatik eragotzi gabe, interesdunek egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkezteko aukera. Halaber, dirulaguntzak emateko akordioetan 10 laneguneko epea emango zaie onuradunei, adierazi dezaten onartu dutela. Ulertuko da inplizituki onartu dutela, horretarako eman den epean besterik adierazten ez bada. | La resolución de concesión o denegación, según proceda, de la ayuda o subvención deberá ser motivada, y en todo caso, deberán quedar acreditados los fundamentos de la resolución que se adopte, con referencia a los criterios objetivos de concesión que rigen en la norma o bases. En la resolución, que se notificará a la persona solicitante, se hará constar expresamente el objeto, solicitante o relación de solicitantes a los que se concede la subvención, su cuantía, forma de justificación y demás condiciones y requisitos exigidos en estas Bases Generales. Igualmente, en la resolución municipal se indicarán los recursos que contra la misma procedan, así como el órgano judicial ante el que hubieran de presentarse y plazo para interponerlos, sin perjuicio de que las personas interesadas puedan ejercitar cualquier otro que estimen conveniente. Asimismo, en los acuerdos de concesión de subvenciones se otorgará a las personas beneficiarias un plazo de 10 días hábiles, al objeto de que éstos manifiesten su aceptación. Se entenderá que esta ha sido implícitamente aceptada si en el plazo concedido al efecto no se efectúa manifestación alguna. |
| Dirulaguntza hauek lehiarik gabeko konkurrentzia prozedura erabiliz emango dira eta ezarritako zenbateko eta mugen arabera onuradunen artean hainbanatuko da, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak 22.1 artikuluan xedatu takoaren babesean. Lehiaketa-teknika erabili gabe, eskabideak garaiz eta behar bezala aurkeztu dituzten eta oinarri hauetan onuradun izateko eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten erakunde guztiei laguntzak ematea helburu du programa honek. | Estas ayudas se concederán mediante el procedimiento de concurrencia no competitiva, con prorrateo entre los beneficiarios/as de la subvención, según cuantía y límites establecidos y en virtud del art. 22.1 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones. Se trata de un programa cuya finalidad es otorgar ayudas a todas aquellas entidades que, habiendo formulado sus solicitudes en tiempo y forma, cumplan los requisitos exigidos en las presentes bases para resultar beneficiarias. |
| **9. artikulua. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA** | **Artículo 9. PLAZO DE PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES** |
| Eskabideak aurkezteko epea deialdi hau Orioko Udaleko webgunean argitaratu eta hurrengo eguneko 09:00etan hasiko da eta 2021eko maiatzaren 15ean amaituko da. | El plazo de presentación de solicitudes se iniciará a las 09:00 horas del día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria la web del Ayuntamiento de Orio, y finalizará el día 15 de mayo de 2021. |
| **10. artikulua. ESKAERAK AURKEZTEKO MODUA** | **Artículo 10. FORMA DE PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES** |

| | |
|---|---|
| Eskaera, beharrezko datu eta dokumentazio osagarriarekin Orioko Udaleko Egoitza Elektronikoaren bidez aurkeztuko da, honako helbide honetatik:<br><br>https://www.orio.eus/udala/tramiteak<br><br>Orioko Udaleko erregistroan ere aurkeztu ahalko dira eskabideak, Orioko Udaletxean (Herriko plaza 1, 20.810).<br><br>Onuradun bakoitzeko eskabide bakarra onartuko da; eskabide bat baino gehiago aurkeztuz gero, azken tokian aurkeztutakoa bakarrik onartuko da.<br><br>Eskaeraren aurkezpena egin ahal izango du pertsona edo entitate eskatzaileak edo bere ordezkari batek. Ordezkaritza hori egiaztatu ahal izango da ondorengoen bitartez:<br><br>• Ordezkari gisa egiaztatzen dion entitatearen ordezkariaren ziurtagiri elektroniko bat edo<br>• 39/2015 Legearen 5. artikuluan ezartzen diren aukerez baliatuz.<br><br>Eskaera elektronikoki aurkezteko, eskaera sinatu beharko da administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 11. artikuluan aurreikusitako sinadura elektronikorako sistemaren bat erabiliz (DNIe, IZENPE edo FNMT-ren ziurtagiri elektronikoak, ...), edota B@KQ/B@K txartelen bitartez.<br><br>**11. artikulua. ESKAERAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**<br><br>Dirulaguntza eskatzeko honako dokumentuak aurkeztu behar dira:<br><br>A) Eskaera orria (I. eranskina). Eskaera ordezkari batek egiten badu, ordezkaritza-baimena aurkeztu beharko du (ahalordeak pertsona juridikoen, sozietate zibilen, ondasun-erkidegoen edo nortasun juridiko propiorik gabeko beste erakunde batzuen kasuan).<br>B) Pertsona fisikoen kasuan bere NANa edo nortasuna egiaztatzeko balio duen agiria. Eta pertsona juridikoaren kasuan, erakundearen | La solicitud, con los datos y documentación complementaria necesaria, se presentará en la Sede Electrónica del Ayuntamiento de Orio, desde la siguiente dirección:<br><br>https://www.orio.eus/udala/tramiteak<br><br>La solicitud también se podrá presentar físicamente en el Ayuntamiento de Orio (Herriko plaza 1, 20.810).<br><br>Solo se admitirá una solicitud por beneficiario/a; en caso de presentar más de una solicitud, sólo se admitirá la presentada en último lugar.<br><br>La presentación de la solicitud podrá realizarse por la persona o entidad solicitante o por uno de sus representantes. Dicha representación podrá acreditarse a través de:<br><br>• Un certificado electrónico del representante de la entidad que le acredite como representante o<br>• Haciendo uso de las opciones establecidas en el artículo 5 de la Ley 39/2015.<br><br>La presentación electrónica de la solicitud se realizará mediante la firma de la solicitud en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 11 de la Ley 39/2015, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. Utilizando alguno de los sistemas de firma electrónica previstos en el artículo (certificados electrónicos de DNIe, Izenpe o FNMT) o B@KQ/B@K.<br><br>**Artículo 11. DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR EN LA SOLICITUD**<br><br>La documentación a presentar para solicitar la subvención es la siguiente:<br><br>A) Documento de solicitud (Anexo I). En caso de que la solicitud la realice un representante deberá presentarse autorización de representación (poderes en el caso de personas jurídicas, sociedades civiles, comunidades de bienes u otras entidades sin personalidad jurídica propia).<br>B) En el caso de que la personas físicas DNI u otro documento válido para acreditar su identidad. Y en el caso de personas jurídicas, CIF de la entidad y, en su caso, el DNI del |

| | |
|---|---|
| IFK eta, hala egokituz gero, ahaldunaren NANa.<br>C) Dirulaguntza eskaera aurkezteko momentuan Ogasunean ordainketak egunean daudela adierazten duen ziurtagiria.<br>D) Dirulaguntza eskaera aurkezteko momentuan Gizarte Segurantzan ordainketak egunean daudela adierazten duen ziurtagiria.<br>E) Azken hileko «langileen izen-zerrenda» (TC2). Soldatapeko langilerik ez badago, azken hilabeteko autonomoen kuotaren ordainagiria.<br>F) Egindako inbertsio, ekipamendu edota inbertsio horiek egiteko beharrezkoak diren ikerketen azalpena eta fakturen zerrenda (2. eranskina).<br>G) Inbertsio, ekipamendu edota inbertsio horiek egiteko beharrezkoak diren ikerketen fakturak eta ordainketa ziurtagiriak. Diruz lagundu ahal diren gastuen deskribapena ondo identifikatuta duten fakturak baino ez dira onartuko. Ez dira kontzeptu kodetuak onartuko.<br>H) Erantzukizunpeko adierazpena, oinarri hauetan ezarritako baldintza eta eskakizunak betetzen direla bermatuz (3. eranskina).<br>I) Dirulaguntza ingresatu beharko litzatekeen kontu korrontearen titularitatea egiaztatzen duen agiria.<br>J) Orioko Udalak beharrezkoa iritziz gero, kasu bakoitzean eskatu lezakeen beste edozein dokumentazio gehigarri. Eskaera bakarra aurkeztuko da eskatzaile bakoitzeko. Eskatzaile batek hainbat establezimendutan inbertsioak egiten dituenean, eskaera bakar batean aurkeztuko dira inbertsio, ekipamendu edota inbertsio horiek egiteko beharrezkoak diren ikerketen fakturak eta ordainketa ziurtagiriak.<br><br>Eskabidea ez badago behar bezala beteta edo ez baditu ezarritako baldintzak betetzen, instrukzio organoak errekerimendua egingo dio eskatzaileari, gehienez ere hamar egun baliodun luzaezineko epean gabezia konpontzeko, eta azalduko du, horrela egiten ez badu, ulertuko dela atzera egiten duela bere eskabidean, eta besterik gabe artxibatuko da, lehendik Ebazpena emanda, APELen 21. artikuluan aurreikusitako baldintzetan. | apoderado.<br>C) Certificados de estar al corriente de pagos en Hacienda en el momento de presentar la solicitud de subvención.<br>D) Certificados de estar al corriente de pagos en la Seguridad Social en el momento de presentar la solicitud de subvención.<br>E) «Relación nominal de trabajadores» del último mes (TC2). En caso de no tener personal asalariado, recibo del pago de la cuota de autónomos del último mes.<br>F) Descripción y relación de facturas de las inversiones, equipamiento, y los estudios necesarios para llevar a cabo esas inversiones realizadas (anexo 2).<br>G) Facturas y justificantes de pago de las inversiones, equipamiento, y/o los estudios necesarios para llevar a cabo esas inversiones. Solo se admitirán las facturas en las que la descripción de los gastos subvencionables esté claramente identificada, no admitiéndose conceptos codificados.<br>H) Declaración responsable, garantizando el cumplimiento de las condiciones y requisitos establecidos en las presentes bases (anexo 3).<br>I) Documento acreditativo de la titularidad de la cuenta corriente en la que se debería ingresar la subvención.<br>J) Cualquier otra documentación que el Ayuntamiento de Orio estimara oportuno requerir en cada caso. Se deberá presentar una única solicitud por cada solicitante. Cuando un/una solicitante realice inversiones en varios establecimientos, todas las facturas y justificantes de pago de las inversiones, equipamiento, y/o los estudios necesarios para llevar a cabo esas inversiones se deberán presentar en una única solicitud.<br><br>Si la solicitud no estuviera debidamente cumplimentada o no reuniera los requisitos establecidos, el órgano instructor requerirá a la persona solicitante para que, en el plazo máximo e improrrogable de diez días hábiles subsane la falta, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, archivándose sin más trámite, previa Resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 21 de la LPAC. |

| | |
|---|---|
| Eskatutako dokumenturen bat dagoeneko Orioko Udalaren organoren batek bere esku edukiko balu, dirulaguntzaren eskatzaileak, aukeran, heldu ahal izango dio 39/2015 Legearen 53.1.d, 28.2 eta 28.3 ataletan ezarritakoari. Horretarako, eskatzaileak adierazi egin beharko du noiz eta zein sailean aurkeztuak edo emanak izan ziren dokumentuok, eta ez badira bost urte baino gehiago igaro zegokien prozedura amaitu zenetik. | En el caso de que algunos de los documentos exigidos ya estuvieran en poder de cualquier órgano del Ayuntamiento de Orio, quien solicite la subvención podrá acogerse a lo establecido en los apartados 53.1.d, 28.2 y 28.3 de la Ley 39/2015, siempre que se haga constar la fecha y el órgano o dependencia en que fueron presentados o, en su caso, emitidos, y cuando no hayan transcurrido más de cinco años desde la finalización del procedimiento a que correspondan. |
| **12. artikulua. EBAZPENA ETA JAKINARAZPENA** | **Artículo 12. RESOLUCIÓN Y NOTIFICACIÓN** |
| Erabakiak eman eta jakinarazteko gehieneko epea 6 hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezten direnetik hasita. Epe hori igarotakoan, berariazko erabakirik eman gabe, ulertuko da eskabidea ez dela onartu. Prozeduraren instrukzioa egin ondoren, eta ebazpen-proposamena idatzi baino lehen, 39/2015 Legearen 82. artikuluan aurreikusitako entzunaldi-izapidea egingo da, salbu eta prozeduran interesdunek azaldutako egitate, alegazio eta frogak baino ez badira agertzen eta kontuan hartzen. Ebazpenak administrazio-bidea amaitzen du. Interesdunei prozeduraren ebazpena jakinaraziko zaie 39/2015 Legearen 40. artikulutik 46. artikulura xe datutakoaren arabera. Nolanahi ere, emandako dirulaguntzak Orioko Udalaren webgunean argitaratuko dira. Emandako dirulaguntza guztien publizitatea egingo du Udalak, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18 artikuluan aurreikusitakoaren eran. | El plazo máximo para dictar y notificar las resoluciones que correspondan será de 6 meses, contado a partir de la fecha de presentación de la solicitud. Transcurrido este plazo sin que se haya dictado resolución expresa, se entenderá que la solicitud ha sido desestimada. Instruido el procedimiento, e inmediatamente antes de redactar la propuesta de Resolución, se evacuará el trámite de audiencia previsto en el artículo 82 de la Ley 39/2015, salvo que no figuren en el procedimiento ni sean tenidos en cuenta otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por las personas interesadas. La resolución pone fin a la vía administrativa. La resolución del procedimiento se notificará a los interesados de conformidad con lo previsto entre el artículo 40 y el artículo 46 de la Ley 39/2015. Todo ello sin perjuicio de la publicación de las subvenciones concedidas en la página web del Ayuntamiento de Orio. El Ayuntamiento dará publicidad a todas las subvenciones concedidas, en la forma prevista en el artículo 18 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones. |
| Ebazpenak administrazio-bideari amaiera emango dio. | La Resolución pondrá fin a la vía administrativa. |
| **13. artikulua. DIRULAGUNTZEN ORDAINKETAK** | **Artículo 13. PAGO DE LA SUBVENCIÓN** |
| Dirulaguntza ordainketa bakarrean (%100) emango da, ebazpena egin ondoren. | La subvención se concederá en un único pago (100%) tras la resolución. |
| **14. artikulua. GORABEHERAK JAKINARAZTEKO BETEBEHARRA.** | **Artículo 14. OBLIGACIÓN DE COMUNICAR INCIDENCIAS** |
| Onuradunaren betebeharra da diruz lagundutako jardueraren inguruko gorabeherak Orioko Udalari | El beneficiario está obligado a comunicar las incidencias relativas a la actividad subvencionada al |

| | |
|---|---|
| jakinaraztea, gertatu eta berehala. Hala nola dirulaguntzaren onuradun izateko edo zenbatekoa finkatzeko baldintzaren baten aldaketa, besteak beste. | ayuntamiento de Orio inmediatamente después de que se produzcan. Por ejemplo, la modificación de algún requisito para ser beneficiario de la subvención o para fijar la cuantía, entre otros. |
| **15. artikulua. BESTE DIRULAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAEZINTASUNA** | **Artículo 15. INCOMPATIBILIDAD CON OTRAS SUBVENCIONES** |
| Dirulaguntza lerro honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako bestelako dirulaguntzekin, betiere laguntzen baturak ez badu gainditzen gastu/inbertsioen zenbatekoa. Kasu horretan, programa honen bidez emandako dirulaguntza soberako zenbatekoan gutxituko da. | Las subvenciones de esta línea subvencional serán compatibles con otras subvenciones para la misma finalidad, siempre que la suma de las mismas no supere el importe de los gastos/inversiones. De superarse dicho umbral, la subvención a otorgar a través de este programa se reducirá en la cuantía excedida. |
| **16. artikulua. KOMUNIKAZIOAK.** | **Artículo 16. COMUNICACIONES** |
| Eskabidea osatzeko errekerimendua, dirulaguntzak ebazteko jakinarazpena eta ordainketen inguruko komunikazioak eskaera atari elektronikoaren bidez jakinaraziko zaizkio eskatzaile edo onuradunari. | Las comunicaciones relativas a la subsanación de documentación, a la resolución y aprobación de las ayudas y pagos de las mismas se remitirán a la persona solicitante o beneficiaria a través del portal electrónico. |
| **17. artikulua. DATUEN TRATAMENDUA.** | **Artículo 17. TRATAMIENTO DE DATOS** |
| Dirulaguntzen eskabideetan nahiz, kasuan kasu, onartutako dirulaguntzen zuriketetan aurkeztutako datuak tratatuko ditugu Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak (2016/679 EB) ezarritakoarekin bat etorriz. Hona hemen datu-tratamendu horri buruzko informazioa: | Los datos aportados tanto en la solicitud como, en su caso, en las justificaciones de las ayudas aprobadas, serán tratados de acuerdo a lo establecido por el Reglamento General de Protección de Datos (2016/679 UE). A continuación se presenta la información relativa a dicho tratamiento: |
| **Tratamenduaren arduraduna:** Orioko Udala, IFZ G2006600P, Herriko plaza 1, 20810 Orio, Tel. 943830346, idazkaritza@orio.eus , www.orio.eus<br>**Tratamenduaren helburua**: Udalerriko jarduera ekonomiko berriak sustatzeko eta enpresen lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzak. Datu tratamenduan ez da erabaki automatizaturik hartuko eta ez dira perfilak egingo.<br>**Gordetzeko epea**: Datu tratamenduaren objektu den zerbitzu edo programa amaitu arte edota horren zuriketa epealdia amaitu arte.<br>**Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa**: Tokiko administrazioaren araubidea eta funtzio publikoaren araubidea.<br>**Datuen jatorria**: interesdunak.<br>**Datu kategoriak**: Tratamendu honetan datu kategoria hauek tratatzen ditugu: identifikazio | **Responsable del Tratamiento:** Orioko Udala, IFZ G2006600P, Herriko plaza 1, 20810 Orio, Tel. 943830346, idazkaritza@orio.eus , www.orio.eus<br>**Finalidad del tratamiento:** Ayudas para el fomento del emprendimiento y mejora de la competitividad empresarial del municipio. El tratamiento de los datos no implica decisiones automatizadas ni generación de perfiles.<br>**Plazo de conservación:** Hasta que se dé por finalizado el servicio o programa objeto del tratamiento y/o su periodo de justificación.<br>**Legitimación o base jurídica del tratamiento:** Legislación de la administración local y la legislación de función pública.<br>**Procedencia de los datos:** Las personas interesadas.<br>**Categoría de los datos:** En el presente |

| | |
|---|---|
| datuak, helbide eta harremanetarako datuak, datu akademiko eta profesionalak, datu ekonomikoak eta diru-laguntzen objektuaren datuak (lan-kontratuak).<br>**Hartzaileak**: Datu pertsonalak lagako zaizkie soilik oinarri hauek arautzen duten dirulaguntza programa finantzatzen duten erakunde publikoei, dirulaguntzaren kudeaketa egiteko beharrezkoa den heinean (Udal Elkarteko udalei).<br>**Pertsonen eskubideak**: Interesdunek eskubidea dute datuak atzitzeko eta zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko edo tratamendua murrizteko eskatzeko, Datuak Babesteko Ordezkariaren bidez. Horrekin batera, eskubidea dute Kontrol Agintaritzari (Datuak Babesteko Euskal Bulegoari) erreklamazioak aurkezteko. | tratamiento tratamos las siguientes categorías de datos: datos identificativos, datos de domicilio y contacto, datos académicos y profesionales, datos económicos y datos relativos al objeto de la ayuda (datos de las contrataciones realizadas).<br>**Destinatarios:** Los datos personales serán cedidos sólo a las administraciones y organismos que financian la convocatoria de ayudas reguladas por estas bases (ayuntamientos mancomunados), al objeto de justificar los fondos concedidos para la misma a la Mancomunidad..<br>**Derechos de las personas:** Los interesados pueden acceder a sus datos, solicitar su rectificación o, en su caso, supresión, oposición o limitación de tratamiento, a través del Delegado de Protección de Datos. Asimismo, las personas interesadas tienen el derecho a reclamar ante la Autoridad de Control (ante la Agencia Vasca de Protección de Datos). |
| **18. artikulua. OINARRIAK INTERPRETATZEA**<br><br>Dirulaguntzak kudeatzeko izapideetan sortzen diren gorabeherak interpretatu eta dagokiona erabakitzeko eskumena Orioko Udaleko alkateari dagokio. | **Artículo 18. INTERPRETACIÓN DE LAS BASES**<br><br>La competencia para interpretar las incidencias que surjan en la tramitación de la gestión de las subvenciones y resolver lo que proceda corresponderá a la alcaldesa de Orio. |
| **19. artikulua. OINARRIAK EZ BETETZEA.**<br><br>Onuradunak oinarri hauetan ezarritako baldintzak ez betetzeak dirulaguntza jasotzeko eskubidea galtzea ekarriko du. Hori gertatzen bada, onuradunak jasotako dirulaguntza itzuli egin beharko du eta udalak eskubidea izango du dagozkion atzerapen interesak exijitzeko. | **Artículo 19. INCUMPLIMIENTOS**<br><br>El incumplimiento por parte del beneficiario de las condiciones establecidas en estas bases supondrá la pérdida del derecho a la subvención. En este supuesto, el beneficiario deberá devolver la subvención percibida y el Ayuntamiento tendrá derecho a exigir los correspondientes intereses de demora. |
| **20. artikulua. ERREKURTSOAK.**<br><br>Deialdi honen aurka berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean, edo zuzenean aurka egin ahal izango zaio, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegian. Epea, bi kasuetan, hasiko da kontatzen deialdi hau argitaratu eta biharamunetik aurrera.<br><br>Dirulaguntza emateko ebazpenaren eta zuriketak onartzeko eta ordainketak egiteko ebazpenen | **Artículo 20. RECURSOS**<br><br>Contra la presente convocatoria podrá interponerse recurso potestativo de reposición en el plazo de un mes ante el órgano competente que la haya aprobado o impugnarse directamente ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses. El plazo, en ambos casos, comenzará a contarse a partir del día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria.<br><br>Los recursos de reposición contra la resolución de concesión de la subvención y las resoluciones de |

| | |
|---|---|
| aurkako berraztertzeko errekurtsoak Orioko Udaleko Alkatetzari aurkeztuko zaizkio. | aceptación y pago de justificaciones se presentarán ante Alcaldía del Ayuntamiento de Orio. |
| **21. artikulua. DEIALDIAREN IRAGARPENA.** | **Artículo 21. PUBLICACIÓN DE LA CONVOCATORIA** |
| Deialdi hau eta oinarriak argitaratu eta iragarriko dira Orioko Udaleko webgunean: http://www.orio.eus<br><br>Era berean, dirulaguntza eskabidea egiteko ereduak eta zuriketak egiteko eranskinak Orioko Udaleko webgunean argitaratuko dira. | La presente convocatoria y sus bases se publicarán y anunciarán página web del Ayuntamiento de Orio: www.orio.eus<br><br>Asimismo, los modelos de solicitud de subvención y los anexos de justificación se publicarán en la página web del ayuntamiento de Orio. |

# **I. ERANSKINA: Eskabide orria** / ANEXO I: Hoja de solicitud

| | |
|---|---|
| **Eskatzailea** / Solicitante: | |
| **Nortasun agiria** / DNI | |
| **Establezimendua** | |
| **IFK** / NIF: | |

**ESKARIA AURKEZTEN DUENA (beste baten izenean aurkeztuz gero)** / PERSONA QUE PRESENTA LA SOLICITUD (en caso de presentarla en nombre de otro)

| | |
|---|---|
| **Izen-abizenak** / Nombre y apellidos: | |
| **Nortasun agiria** / DNI | |

**JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA** / DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Helbidea** / Dirección: | | | |
| **Herria** / Población | | **Posta kodea** / CP | |
| **Telefonoa:** | | **E-maila** | |

**KONTU KORRONTEAREN ZENBAKIA** / CUENTA BACARIA PARA EL ABONO DE LA AYUDA

| | |
|---|---|
| **Banketxea** / Entidad bancaria | |
| **Kontu Korrontearen zenbakia** / Nº Cuenta corriente | |

**MARKATU ZURE AUKERA**/ MARQUE SU OPCIÓN:

☐ **Orioko merkataritza eta ostalaritza sektoreetan COVID-19ari aurre egiteko inbertsio eta ekipamenduetarako dirulaguntzen programa** / Programa para la reactivación económica local en los sectores del comercio y hostelería para hacer frente a la Covid-19.

**TOKIA ETA EGUNA** / FECHA Y LUGAR:

**SINADURA** / FIRMA:

## **II. ERANSKINA: Inbertsioen xehetasunak/** ANEXO I: Detalle de las inversiones

**INBERTSIO JARDUEREN DESKRIBAPENA/**
DESCRIPCIÓN DE LAS ACTUACIONES DE INVERSIONES

| |
|---|
| |

**FAKTURAK/**FACTURAS

| **Faktura zenbakia** / Nº de factura | **Fakturazio data /** Fecha de la factura | **Hornitzailea** / Proveedor | **Azalpena /** Descripción | **Zenbatekoa (BEZ gabe)**/ Importre sin IVA | **Ordanketa data**/ Fecha de pago |
|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |

**III. ERANSKINA: Erantzukizunpeko adierazpena** / ANEXO III: Declaración responsable

| | |
|---|---|
| **Izen-abizenak** / Nombre y apellidos | |
| **Nortasun-agiria** / DNI | |
| **Ordezkatzen dudan enpresa** / Empresa a la que represento | |
| **IFK** / NIF | |

**NIRE ERANTZUKIZUNPEAN HAUXE ADIERAZTEN DUT** / BAJO MI RESPONSABILIDAD DECLARO LO SIGUIENTE

**1. Dirulaguntzen onuradun izaera** / Condición de beneficiaria de subvenciones:

☐ **EZ dudala onuradun izaera lortzeko eta ordainketa jasotzeko debekurik, bat etorriz dirulaguntzen araudiarekin, eta azaroaren 17ko 38/2003 Legean ezarritako dirulaguntzen onuradunen betebeharrak betetzeko konpromisoa hartzen dudala** / NO estoy incursa en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria y para ser receptora del pago de acuerdo a la normativa de subvenciones y que así mismo me comprometo al cumplimiento de las obligaciones de las personas beneficiarias de subvenciones establecidas en la Ley 38/2003 de 17 de noviembre.

**2. Beste dirulaguntzekin bateragarritasuna**/ Concurrencia de otras ayudas

☐ **EZ dudala jaso helburu berdina duten eta kontzeptu berberak diruz laguntzen dituzten beste dirulaguntzarik** / NO he recibido otras ayudas que tengan el mismo objetivo y que subvenciones los mismos conceptos.

☐ **BAI eskatu/jaso dut beste dirulaguntza bat/batzuk helburu berdina dutena eta kontzeptu berberak diruz laguntzen dituztenak** / SÍ, he solicitado/recibido otras ayudas que tengan el mismo objetivo y/o que subvenciones los mismos conceptos.

| | |
|---|---|
| **Eskatutako/jasotako laguntzak** / Ayuda solicitada/recibida | |
| **Laguntza eman duen erakundea** / Entidad que otorga la ayuda | |

**BESTE LAGUNT(ZA)REN EGOERA** / SITUACIÓN DE OTRA/S AYUDA/S

☐ **Eskaera eginda** / Solicitud realizada.
☐ **Onartuta (diru kopurua zehaztu)** / Aceptada (concretar cantidad).

**Eta horrela jasota gera dadin sinatzen dut** / Y para que así conste firmo la siguiente

**TOKIA ETA EGUNA** / FECHA Y LUGAR:

**SINADURA** / FIRMA:

**ENPRESAREN ZIGILUA** / SELLO DE LA EMPRESA: